



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

ALDIZKARI OFIZIALA BOLETÍN OFICIAL

VIII. legegintaldia / VIII legislatura

N.º 102 zk.

2007.05.28 / 28.05.2007

AURKIBIDEA ÍNDICE

LEGEGINTZA FUNCIÓN LEGISLATIVA

LEGE PROIEKTUAK PROYECTOS DE LEY

Pág. [16456](#) *Familia-bitartekaritzakoa* (Tramitatzeko onartzea)

[16456](#) or. *De mediación familiar* (Admisión a trámite)

LEGE PROPOSAMENAK PROPOSICIONES DE LEY

Pág. [16476](#) *De publicidad y comunicación institucional del País Vasco* (Enmiendas)

[16476](#) or. *Euskal Autonomia Erkidegoko publizitate eta komunikazio instituzionalari buruz* (Zuzenketak)

Pág. [16492](#) *De ordenación ambiental del alumbrado para la protección del medio nocturno y para el ahorro de energía* (Apertura nuevo plazo presentación enmiendas)

[16492](#) or. *Gaueko ingurunea babesteko eta energia aurrezteko argiteriaren ingurugiro-antolamenduari buruz* (Zuzenketak aurkezteko beste epe bat irekitzea)

KONTROL ETA SUSTAPEN POLITIKOA FUNCIÓN DE CONTROL E IMPULSO POLÍTICOS

LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENAK PROPOSICIONES NO DE LEY

- | | | | |
|------------|--|-----------|--|
| Pág. 16493 | <i>Relativa a la creación de un nuevo hospital público en Vitoria-Gasteiz</i> (Acuerdo de la comisión) | 16493 or. | <i>Gasteizen beste ospitale publiko bat egiteari buruz</i> (Batzordearen erabakia) |
| Pág. 16494 | <i>Relativa al centro especial de empleo Indesa</i> (Acuerdo de la comisión) | 16494 or. | <i>Indesa enplegu-zentro bereziari buruz</i> (Batzordearen erabakia) |
| Pág. 16495 | <i>Relativa a la modificación del Decreto 160/1994, sobre derechos y deberes del alumnado</i> (Acuerdo de la comisión) | 16495 or. | <i>Ikasleen eskubide eta betebeharren gaineko 160/1994 Dekretua aldatzeari buruz</i> (Batzordearen erabakia) |
| Pág. 16496 | <i>Relativa a la falta de especialistas en pediatría en los centros de salud y ambulatorios de Osakidetza</i> (Acuerdo de la comisión) | 16496 or. | <i>Osakidetza osasun-zentro eta ambulatorioetan pediatriako espezialitatean dagoen espezialista faltari buruz</i> (Batzordearen erabakia) |
| Pág. 16497 | <i>Sobre gratuidad en el acceso al museo Guggenheim Bilbao</i> (Acuerdo de la comisión) | 16497 or. | <i>Guggenheim Bilbao museora doan sartzeari buruz</i> (Batzordearen erabakia) |
| Pág. 16497 | <i>Referente a la elaboración de la ley general de artesanía de la Comunidad Autónoma del País Vasco, con la regulación, entre otras actividades, del ejercicio profesional y empresarial de la actividad artesana de peluquería y estética del País Vasco</i> (Enmiendas) | 16497 or. | <i>Euskal Autonomia Elkarte eskulangintza lege orokorra egiteari buruz, beste jarduera batzuen artean ile-apainketako eta estetika eskulan-jardun profesionala eta enpresariala arautzeko</i> (Zuzenketak) |
| Pág. 16498 | <i>Relativa a la I+D universitaria</i> (Enmienda) | 16498 or. | <i>Unibertsitateko ikerketa eta garapeneri buruz (I+G)</i> (Zuzenketa) |
| Pág. 16499 | <i>2004ko martxoaren 11ko atentatuaren inguruko epaiketa judicialari buruz</i> (Zuzenketa) | 16499 or. | <i>Sobre el proceso judicial en torno a los atentados del 11 de marzo de 2004</i> (Enmienda) |
| Pág. 16499 | <i>Sobre la prevención de la tortura y el respeto a los derechos de las personas detenidas</i> (Enmienda) | 16499 or. | <i>Torturari aurrea hartzeari eta atxilotutako pertsonen eskubideak errespetatzeari buruz</i> (Zuzenketa) |
| Pág. 16500 | <i>Relativa a la jubilación parcial por contrato de relevo para el personal laboral al servicio de la Administración pública sanitaria vasca</i> (Enmiendas) | 16500 or. | <i>Euskadiko Osasun Administrazio publikoko lan-kontratuko langileei txanda-kontratuagatik erretiro partziala izateko aukera bermatzeari buruz</i> (Zuzenketak) |
| Pág. 16501 | <i>Sobre realizar un estudio exhaustivo de la realidad concreta de las víctimas de la violencia de grupos de la extrema derecha, fuerzas parapoliciales y fuerzas policiales</i> (Enmienda) | 16501 or. | <i>Eskuin muturreko taldeen, indar parapolizialen eta indar polizialen indarkeriaren biktimen errealitate konkretuaren gainean azterketa sakon bat egiteari buruz</i> (Zuzenketa) |
| Pág. 16502 | <i>Relativa a los criterios de admisión de alumnos</i> (Enmienda) | 16502 or. | <i>Ikasleak onartzeko irizpideei buruz</i> (Zuzenketa) |



- | | | | |
|------------|---|-----------|---|
| Pág. 16502 | <i>Sobre la inclusión de cláusulas sociales en los procedimientos de contratación</i> (Enmiendas) | 16502 or. | <i>Kontratazio-prozeduretan klausula sozialak sartzeari buruz</i> (Zuzenketak) |
| Pág. 16504 | <i>Relativa a la instalación de un ascensor en el centro de educación permanente de adultos de Barakaldo</i> (Enmienda) | 16504 or. | <i>Helduen hezkuntza iraunkorreko Barakaldoko zentroan igogailu bat jarzteari buruz</i> (Zuzenketak) |
| Pág. 16504 | <i>Relativa a la creación de un nuevo hospital público en la margen derecha del Nervión, en Vizcaya</i> (Admisión a trámite) | 16504 or. | <i>Bizkaian Nerbioi ibaiaren eskumaldean ospitale publiko berri bat erakitzeari buruz</i> (Tramitatzeke onartzea) |
| Pág. 16507 | <i>Sobre el servicio de lanzadera entre el barrio de San Antonio y la estación de metro de Etxebarri</i> (Admisión a trámite) | 16507 or. | <i>San Antonio auzoaren eta Etxebarriko metro-geltokiaren artean jarritako lantzadera-zerbitzuari buruz</i> (Tramitatzeke onartzea) |

INTERPELAZIOAK INTERPELACIONES

- | | | | |
|------------|--|-----------|---|
| Pág. 16508 | <i>Relativa a la eficacia de la Ertzaintza en la lucha contra la banda terrorista ETA</i> (Admisión a trámite) | 16508 or. | <i>Ertzaintzak ETA banda terroristaren aurkako borrokan eduki beharreko eraginkortasunari buruz</i> (Tramitatzeke onartzea) |
|------------|--|-----------|---|

OSOKO BILKURAN AHOZ ERANTZUTEKO GALDERAK PREGUNTAS PARA RESPUESTA ORAL EN PLENO

- | | | | |
|------------|---|-----------|---|
| Pág. 16509 | <i>Relativa a la situación de los MIR en Osakidetza</i> (Admisión a trámite) | 16509 or. | <i>Osakidetzaiko barne-mediku egoiliarren egoerari buruz</i> (Tramitatzeke onartzea) |
| Pág. 16510 | <i>Euskal Irrati Telebista erakunde publikoak 2007ko hauteskundeei emaniko tratamenduaren gainean</i> (Tramitatzeke onartzea) | 16510 or. | <i>Sobre el tratamiento dado a las elecciones de 2007 por el ente público Radio Televisión Vasca</i> (Admisión a trámite) |

IDATZIZ ERANTZUTEKO GALDERAK PREGUNTAS PARA RESPUESTA ESCRITA

- | | | | |
|------------|--|-----------|---|
| Pág. 16511 | <i>Relativa al homenaje tributado el 6 de mayo en Larrabezúa a varios miembros de la banda terrorista ETA</i> (Admisión a trámite) | 16511 or. | <i>ETA banda terroristako kide batzuei Larrabetzun maiatzaren 6an egindako omenaldiari buruz</i> (Tramitatzeke onartzea) |
| Pág. 16512 | <i>Relativa al número de mujeres de entre 65 y 69 años citadas en el Programa de Detección Precoz de Cáncer de Mama</i> (Admisión a trámite) | 16512 or. | <i>Titiko Minbizia Goiz Detektatzeko Programaren barruan hitzordua jarri zaien 65 eta 69 arteko emakumeen kopuruari buruz</i> (Tramitatzeke onartzea) |
| Pág. 16513 | <i>Relativa a la manifestación convocada por la ilegal Askatasuna el 12 de mayo en Hernani</i> (Admisión a trámite) | 16513 or. | <i>Askatasuna legez kanpokoak Hernanin maiatzaren 12rako deitutako manifestazioari buruz</i> (Tramitatzeke onartzea) |
| Pág. 16514 | <i>Relativa al diagnóstico de las mujeres con cáncer de mama</i> (Admisión a trámite) | 16514 or. | <i>Titietako minbizia duten emakumeen diagnostikoari buruz</i> (Tramitatzeke onartzea) |



- Pág. 16515 *Sobre la elaboración del programa de intervención para niños, niñas y adolescentes con consumos problemáticos y de dependencia al alcohol y otras drogas* (Admisión a trámite)
- Pág. 16516 *Relativa a los problemas de personal surgidos en la Unidad de Información y Análisis de la Ertzaintza* (Admisión a trámite)
- Pág. 16517 *Relativa a las cuatro mejores sugerencias del año pasado aportadas por los agentes de la Ertzaintza para mejorar el servicio* (Admisión a trámite)
- Pág. 16518 *Relativa a las nuevas motocicletas adquiridas para la Unidad de Tráfico de la Ertzaintza* (Admisión a trámite)
- Pág. 16519 *Relativa a la ayuda otorgada a Media Antena Euskal Herria* (Admisión a trámite)
- Pág. 16520 *En relación con los criterios de actuación en las detenciones y traslados de personas menores de edad* (Admisión a trámite)
- Pág. 16521 *Relativa a la comercialización de la anchoa* (Admisión a trámite)
- Pág. 16523 *Relativa a la aplicación de la Ley 7/2007, del Estatuto Básico del Empleado Público, en la Ertzaintza* (Admisión a trámite)
- Pág. 16524 *Relativa a actuaciones del Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación en relación con el cancro del pino* (Admisión a trámite)
- 16515 or. *Alkoholarekin eta beste droga batzuekin kontsumo-arazoak eta mendekotasuna dituzten haur eta nerabeentzako interbentzio-programa bat prestatzeari buruz* (Tramitatzeke onartzea)
- 16516 or. *Ertzaintzako Informazio eta Azterketa Unitatean sortutako pertsonal-arazoei buruz* (Tramitatzeke onartzea)
- 16517 or. *Iaz Ertzaintzako agenteek zerbitzua hobetzeko egindako lau iradokizun onenei buruz* (Tramitatzeke onartzea)
- 16518 or. *Ertzaintzaren Trafiko Unitaterako erositako motozikleta berriei buruz* (Tramitatzeke onartzea)
- 16519 or. *Media Antena Euskal Herriari emandako laguntzari buruz* (Tramitatzeke onartzea)
- 16520 or. *Adingabeok atxilotzean eta lekuz aldatzean eduki beharreko jokaerairizpideei buruz* (Tramitatzeke onartzea)
- 16521 or. *Antxoaren merkaturatzeari buruz* (Tramitatzeke onartzea)
- 16523 or. *Enplegatutako Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 7/2007 Legea Ertzaintzan aplikatzeari buruz* (Tramitatzeke onartzea)
- 16524 or. *Pinuaren txankroaren gainean Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailak hartutako neurriei buruz* (Tramitatzeke onartzea)

AGERRALDI ESKEAK SOLICITUDES DE COMPARENCIA

- Pág. 16527 *Para estudiar la actualización y reforma del Derecho Civil Foral y Especial*
- Pág. 16527 *Para exponer los problemas de la pesca de altura al fresco en la Unión Europea*
- 16527 or. *Foru Zuzenbide Zibila eta Zuzenbide Berezia erreformatzea eta eguneratzea aztertzeke*
- 16527 or. *Azaltzeko zer-nolako arazoak dituen freskotarako alturako arrantzak Europar Batasunean*

DOKUMENTAZIO ESKEAK SOLICITUDES DE DOCUMENTACIÓN

- Pág. 16528 *Itxaron-zerrendak murrizteko helburuarekin erakunde pribatuekin sinatutako osasun-hitzarmenei buruz* (Tramitatzeke onartzea)
- 16528 or. *Sobre los convenios sanitarios suscritos con entidades privadas para rebajar las listas de espera* (Admisión a trámite)



| | | | |
|------------|---|-----------|--|
| Pág. 16528 | <i>Acerca de la plantilla de Osakidetza-Servicio Vasco de Salud a 31 de diciembre de 2006</i> (Admisión a trámite) | 16528 or. | <i>Osakidetzak 2006ko abenduaren 31n zuen plantillari buruz</i> (Tramitatze-ko onartzea) |
| Pág. 16529 | <i>Relativa a las adjudicaciones llevadas a cabo por el Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales</i> (Admisión a trámite) | 16529 or. | <i>Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak egindako esleipenei buruz</i> (Tramitatze-ko onartzea) |
| Pág. 16530 | <i>Relativa a los contratos firmados por el Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales</i> (Admisión a trámite) | 16530 or. | <i>Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak sinatutako kontratuei buruz</i> (Tramitatze-ko onartzea) |
| Pág. 16531 | <i>Referente a las inspecciones realizadas por el Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación del Gobierno Vasco</i> (Admisión a trámite) | 16531 or. | <i>Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailak egindako ikuskatzei buruz</i> (Tramitatze-ko onartzea) |

EKONOMIA ETA ONDARE GAIEI BURUZKO INFORMAZIOAK ETA BAIMENAK INFORMACIONES Y AUTORIZACIONES ECONÓMICAS Y PATRIMONIALES

| | | | |
|------------|--|-----------|--|
| Pág. 16532 | <i>Informe de situación presupuestaria a 30 de abril de 2007</i> | 16532 or. | <i>Aurrekontu-egoeraren txostena, 2007ko apirilaren 30era artekoa</i> |
| Pág. 16532 | <i>Informe de ejecución presupuestaria al primer trimestre de 2007</i> | 16532 or. | <i>Aurrekontu-exekuzioari buruzko txostena, 2007ko lehen hiruhilekoari dagokiona</i> |
| Pág. 16532 | <i>Resolución de 30 de abril de 2007, del director de Patrimonio y Contratación, sobre desafectación del dominio público de dos inmuebles sitos en Eibar</i> | 16532 or. | <i>Ebazpena, 2007ko apirilaren 30eko, Ondare eta Kontratazio zuzendariarena, Eibarren dauden bi higiezin jabari publikotik jaregiteari buruz</i> |

HITZARMENAK CONVENIOS

| | | | |
|------------|--|-----------|---|
| Pág. 16533 | <i>Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza SA sortzeko</i> | 16533 or. | <i>Para la creación de la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa SA</i> |
|------------|--|-----------|---|

INFORMAZIOAK INFORMACIONES

DEIALDIAK CONVOCATORIAS

| | | | |
|------------|---|-----------|--|
| Pág. 16545 | <i>Convocatoria del pleno ordinario señalado para el día 1 de junio de 2007</i> | 16545 or. | <i>2007ko ekainaren 1erako izendatuen ohiko osoko bilkurarako deialdia</i> |
|------------|---|-----------|--|

[Relación de asuntos en curso por tipo](#)

[Bidean diren gaien zerrenda motaren arabera](#)

[Relación de asuntos cerrados](#)

[Bukatutako gaien zerrenda](#)



LEGEGINTZA FUNCIÓN LEGISLATIVA

LEGE PROIEKTUAK PROYECTOS DE LEY

Familia-bitartekaritzakoa (Tramitatzeko onartzea)
(08/09.01.00.0015)

Mahaiaik, 2007ko maiatzaren 24ko bileran, erabaki du tramitatzeko onartzea LEGE PROIEKTUA, eta agindu du Lan eta Giarre Gaietarako Batzordeari bidal dakiola eta Eusko Legebiltzarren Aldizkari Ofizialean argitarara dadila.

Legebiltzarkideek eta taldeek, Legebiltzarrean indarrean dagoen Araudiko 102. artikuluan adierazitakoari jarraituz, zuzenketak aurkeztu ahal izango dituzte, argitalpen hau egin eta hurrengo hamabost egun baliiodunen barruan, Mahaiari idazki arrazoitua bidalitz.

Eusko Legebiltzarreko lehendakaria
Izaskun Bilbao Barandica

FAMILIA-BITARTEKARITZAKO LEGE PROIEKTUA

ZIOEN AZALPENA

Lege honek familia-bitartekaritza arautzen du, familia barruan sortzen diren gatazkak judizioz kanpo ebazteko prozedura eskaintzearen.

Europar Batasuneko herrialde gehienetan ari dira sartzen egokiro bitartekaritza-sistema, nor bere erara, bakoitzaren nortasuna eta esparrua aintzakotzat hartuta. Bitartekaritza-sistema hau indartzen eta sendotzen ari da, batez ere, argi eta garbi erakutsi duela adostutako konponbideak azkar bilatzen benetan eraginkorra dela, familia barruko senideen artean gatazka gutxiago sortzen dela, eta beren arteko komunikazioa hobetzen dela; horrek guztiak lagundu egiten du familiarreko harremanei eusten.

Horrelako prozedurak, zertarako? Zalantzarik gabe, horren bidez, justiziara iristeko bideak hobetu nahi ditugu; funtsean, baliabideak ahalik eta ondoen erabiltzea, horixe da helburua. Prozedura hauek juridikio-prozeduren osagarri dira edo/eta, nahi izanez gero, aukerakoak, gatazkan diren alde batekoen nahiz bestekoaren arteko elkarrizketa sustatzen denez, auzi jakin batzuk konpontzeko egokiagoak direlako. Prozeduratan ebazten diren gaiak garrantzi handikoak dira, eta neurri bereko kalitateaz erabili behar dira. Horrela adierazita geratu zen estatu kideetako Ministroen Kontseiluak emandako gomendioan (R-86-12), epaitegie-tan dagoen gehiegizko lan-karga murrizteko eta prebenitzeko neurriak proposatu zituztean.

Horri lotuta, esan beharra dago, familia-bitartekaritza egokiro garatzen ari dela, eta, aldi be-

De mediación familiar (Admisión a trámite)
(08/09.01.00.0015)

La Mesa, en su reunión del día 24 de mayo de 2007, acuerda admitir a trámite el PROYECTO DE LEY, y ordena su remisión a la Comisión de Trabajo y Acción Social y su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

Los miembros del Parlamento y los grupos parlamentarios, conforme a lo dispuesto en el artículo 102 del vigente Reglamento de la Cámara, podrán presentar dentro de los quince días hábiles siguientes al de esta publicación las enmiendas que consideren pertinentes, mediante escrito motivado y dirigido a la Mesa.

La presidenta del Parlamento Vasco
Izaskun Bilbao Barandica

PROYECTO DE LEY DE MEDIACIÓN FAMILIAR

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

La presente Ley regula la mediación familiar como procedimiento de resolución extrajudicial de los conflictos que se plantean en el seno de la familia.

La mediación está implantándose con éxito en la mayoría de los países de la Unión Europea, con diversas variantes referidas a su naturaleza y a su ámbito. Su creciente afianzamiento se debe fundamentalmente a su demostrada eficacia para la obtención de arreglos amistosos en breve plazo, la disminución de los conflictos entre los y las miembros de una familia y la mejora de la comunicación entre ellos, lo que favorece el mantenimiento de las relaciones familiares.

Estos procedimientos se inscriben plenamente en el contexto de mejora de acceso a la justicia, pretendiendo fundamentalmente la optimización de los recursos. Desempeñan un papel complementario y/o alternativo con relación a los procedimientos jurisdiccionales, en la medida que se adaptan mejor a algunos conflictos, porque favorecen el diálogo entre las partes. Deben por ello ser desarrollados con la calidad que merecen los asuntos que se tratan. Estas afirmaciones quedan recogidas en la Recomendación del Consejo de Ministros de los Estados Miembros, sobre las Medidas para Prevenir y Reducir la Carga de Trabajo Excesiva en los Tribunales R (86)12.

Por lo demás, se produce en este momento una feliz confluencia entre el desarrollo de la mediación



rean, gizarte-zerbitzua, familiari eta gizarteari begira jarrita, gero eta helduagoa eta unibertsalagoa dela, eta, horrenbestez, abagune horretan, gizarte-zerbitzuek osatzen dutela esparrurik egokiena, familia-bitartekaritzako zerbitzuak emateko orduan; lege honek hori horrela ikusten du behintzat.

Bitartekaritza gizartean bakea zabaltzeko tresna da, eta halaxe adierazita dago, bai Europako Batzordeak 2001eko apirilaren 4an emandako gomendioan (kontsumo-arloko auziei buruz adostutako ebazpenak emateko judiziorik kanpoko organoetan aplikatu beharreko printzipioak), bai estatu kideetako Ministroen Kontseiluak familia-bitartekaritza emandako gomendioan (R-98), bai Zuzenbide Zibileko eta Merkataritza Zuzenbideko arloan auziak konpontzeko modalitate alternatiboetarako buruzko 2002ko apirilaren 19ko Liburu Berdean ere. Auzian dauden alde batekoak nahiz beste-koak, jarrera aktiboa hartuta, bakoitzarentzat egokiena izan litekeen konponbidea bilatzen saiatu behar dira. Gatazka adostasun-ikuspegi honetatik konponduz gero, errazagoa izaten da gero alde batekoak nahiz beste-koak harremanetan jarraitzea. Ematen diren gomendioak, nahiz eta berez aholku informatibo hut-sak izan, bitartekaritzako araubide juridikorako oinarri gero.

Beraz, bitartekaritzaren bidez, alde batekoak nahiz beste-koak zuzenean hartzen dute parte berei dagozkien familia-arazoak konpontzeko irtenbide bila, eta horrek, alde batetik, familiako kideen arteko harremana sustatzen du, eta, bestetik, partaideen arteko giro gatazkatsua arindu, eta konponbiderako denbora murrizten du. Esan liteke, beraz, bitartekaritzak lagundu egiten duela gauzatzeko moduko eta guztiek onartzeko moduko konponbideak bilatzen, era horretara, aurrez aurre dauden kideek gerora begira ere beren arteko harremanei euts diezaieten.

Bitartekaritza-arlo honetan daukagun lege-esparruari dagokionez, esan behar da, estatuan oraingo bitartekari-lanari bere esparru juridikoa emango dion araubiderik ez dagoen arren, autonomia-erkidego batzuetan dagoeneko arlo hau arautzea erabaki dutela, eta, horretarako, lege-mailako arauak eman dituztela. Gure ekimen honek, beraz, gugandik gertu inguruan zabaltzen eta sendotzen ari den joera bati jarraitu nahi dio; arlo honetaz arauak emateko orduan ekimenak oinarrian hartu ditu, alde batetik, Konstituzioaren 39. artikulua (horren arabera, botere publikoek bermatu egin behar baitituzte familiaren babes soziala, ekonomikoa eta juridikoa, baita seme-alaben babes integrala ere), eta, bestetik, gizarte-laguntzaren inguruan Autonomia Estatutuan jasotako eskumenak.

Bitartekaritza, azken batean, prozedura bat da. Prozedura horretan hirugarren pertsona batzuk (pertsona inpartzialak eta horretan adituak) lanean hasi, eta auzian direnei laguntzen saiatzen dira, beren arteko gatazkari adostutako irtenbidea eman diezaioten. Bitartekaritzan diharduen profesionalak berak ez du inolako erabakirik hartzen; auzian direnek eurek

familiar y el proceso de maduración y universalización de los servicios sociales con un enfoque cada vez más familiar y comunitario, de suerte que, según entiende esta Ley, el de los servicios sociales es el marco idóneo en el que encuentran acomodo los servicios de mediación familiar.

La Recomendación de la Comisión de 4 de abril de 2001 relativa a los Principios Aplicables a los Órganos Extrajudiciales de Resolución Consensual de Litigios en Materia de Consumo, la Recomendación de la Comisión de Ministros de los Estados Miembros R (98) sobre la Mediación Familiar y el denominado Libro Verde de 19 de abril de 2002 sobre las Modalidades Alternativas de Solución de Conflictos en el Ámbito de Derecho Civil y Mercantil conciben la mediación como un instrumento al servicio de la paz social. Las partes emprenden un camino de aproximación en el que desempeñan un papel activo, al tratar de descubrir la solución que más les conviene. Una vez resuelto el conflicto, este enfoque consensual incrementa para las partes la posibilidad de mantenimiento de las relaciones. Estas recomendaciones, a pesar de su carácter informativo, sientan las bases del régimen jurídico de la mediación.

De este modo, a través de la mediación las partes participan directamente en la búsqueda de soluciones a los conflictos familiares que les afectan, lo cual favorece la comunicación entre las y los miembros de la familia, a la vez que reduce tanto la conflictividad entre las partes como el tiempo necesario para su resolución. Por todo ello se puede afirmar que la mediación facilita la consecución de arreglos viables y recíprocamente aceptables, fomentando así mismo el mantenimiento de las relaciones futuras entre las partes.

En cuanto a nuestro ámbito normativo, si bien a nivel estatal no existe todavía una regulación que dote a esta figura de un marco jurídico propio, son ya varias las Comunidades Autónomas que han optado por regularla con rango de Ley. La iniciativa vasca se enmarca, por tanto, en una tendencia que se va afianzando en nuestro entorno más próximo, y ampara su actuación normativa, por un lado, en el artículo 39 de la Constitución, en virtud del cual los poderes públicos aseguran la protección social, económica y jurídica de la familia, así como la protección integral de los hijos y las hijas, y por otro, en las competencias de asistencia social recogidas en el Estatuto de Autonomía.

La mediación es un procedimiento que consiste en la intervención de terceras personas imparciales y expertas, quienes ayudan a las partes a alcanzar por sí mismas soluciones amistosas a sus conflictos. El profesional o la profesional mediadora no adopta ninguna decisión por sí misma, sino que son las partes quienes deciden y alcanzan o no acuerdos sobre el conflicto

erabaki behar dute, eta, adostekotan, eurek adostu behar dute beren arteko gatazka hori nola konpondu.

Lege honetan erabaki da bitartekaritza-esparru hau ondo zabaltzea, eta, ezkondua dela nahiz izatezko bikotean dela, kide biak banantzen direnean sortutako gatazkez gainera, familia barnean sor daitezkeen bestelako egoera gatazkatsuak ere hartu nahi izan ditu lege honek. Horrenbestez, lege honen arabera, era askotako egoerak sartzen dira bitartekaritza-lanen barruan, besteak beste, gurasoen eta seme-alaben arteko gatazkak, familia biologikoaren eta adopzioko familiaren artean gerta daitezkeen gatazkak, ahaideen artean elikagaiak direla-eta sortzen diren gatazkak, gurasoek aitona-amonei ilobekin harreman normalizatuak izaten uzten ez dietenean gertatzen diren gatazkak, eta jarauntsiak, oinordetzak edo familiako negozioak direla-eta familietan egoten diren gatazkak, baita lege honen ondorioetarako zehaztutako bizikidetzaldean artean sortutako gatazkak ere.

Bitartekaritza-jarduna zerbitzu publikoen bitartez bidera daiteke, eta, betiere, arlo honetan egon daitezkeen ekimen pribatuko bestelako jardunei kalte egin gabe, lege honetan ezarritakoari jarraituz burutu behar dute beti jardun hori.

Horrez gainera, aipatu beharra dago lege honi esker Bitartekarien Erregistroa sortu dela, eta familia-bitartekaritzako Aholku Batzordea ere bai.

Bitartekarien Erregistroa sortuta, alde batetik, bitartekaritza-lana kalitate-maila jakin batez beteko dela bermatu nahi dugu, zeregin hori lege honetan eskatutako baldintzak betetzen dituzten pertsonak egingo dutela eta arlo horretan benetan profesional horiek bakarrik jardungo dutela kontrolatzeko beharra dagoelako. Beste alde batetik, Bitartekarien Erregistro honen bidez, herritarrek erraz jakin dezakete nortzuk ari diren arlo horretan lanean, hau da, zein pertsonak eskaintzen dituzten bitartekari-zerbitzuak, eta eskuragarri dauden bitartekaritza-zerbitzu publikoak zein diren ere bai.

Familia-bitartekaritzako Aholku Batzordeari dagokionez esan behar da, funtsean, Eusko Jaurlaritzaren barruan familia-bitartekaritzako eskumena duen sailari aholkuak emateko sortu dela, eta horixe dela bere xede nagusia. Aholkularitza-zeregin hori egokiro beteko dela bermatzeko, Aholku Batzordea osatzen, herri-administrazioako ordezkariekin batera, unibertsitateetako nahiz elkargo profesionaletako kideak izango dira, baita familia-bitartekaritzaren arloan diharduten erakundeetako ordezkariak ere.

Lege honek 34 artikulua ditu, sei kapitulutan banatuta (ondoren zehaztuko dira kapitulu horiek); horrez gain, xedapen iragankor bakarra eta azken xedapen bi daude.

- Hasteko, I. kapituluan xedapen orokorrak jaso dira, hala nola, arauaren xedea, aplikazio-eremua, arloarekin zerikusia duten Administra-

que mantienen.

La Ley opta por un ámbito de aplicación amplio que se extiende más allá de los conflictos originados en las situaciones de ruptura de pareja —ya se trate de matrimonios o de parejas de hecho—, pudiéndose aplicar a otras circunstancias conflictivas que pueden darse en el medio familiar. Así, contempla entre las situaciones a las que puede extenderse la aplicación de la mediación familiar los conflictos entre progenitores y sus hijos e hijas, los conflictos surgidos entre la familia biológica y la familia de acogida, los conflictos por razón de alimentos entre parientes, los conflictos surgidos cuando los progenitores y las progenitoras impidan a los abuelos y abuelas mantener relaciones normalizadas con sus nietos y nietas, los conflictos existentes en las familias por causa de herencias, sucesiones o negocios familiares, o los originados entre grupos convivenciales definidos éstos a efectos de esta Ley, entre otros.

Las actuaciones de mediación podrán realizarse a través de servicios públicos, que se desarrollarán sin menoscabo de las iniciativas privadas que en esta área pudieran surgir, y que deberán actuar según lo establecido en la presente Ley.

En otro orden de cosas, cabe destacar la creación en la Ley del Registro de Personas Mediadoras y del Consejo Asesor de la Mediación Familiar.

La creación del Registro de Personas Mediadoras responde, por una parte, a la necesidad de controlar que la mediación se realiza efectivamente por aquellas personas que cumplen con los requisitos que esta Ley exige, con el fin de asegurar que la misma se desempeña con un determinado nivel de calidad. Por otra parte, el Registro se instrumenta como un medio a través del cual los y las particulares pueden conocer las personas que ofrecen sus servicios como mediadoras, así como los servicios públicos de mediación existentes.

En lo que respecta al Consejo Asesor de la Mediación Familiar, el mismo se crea con el fin primordial de asesorar al Departamento del Gobierno Vasco competente en materia de mediación familiar. A los efectos de asegurar esa función asesora, el Consejo estará compuesto, además de por representantes de la Administración Pública, por representantes de los colegios profesionales, universidades y organizaciones del ámbito de la mediación familiar.

La presente Ley consta de 34 artículos divididos en seis capítulos que a continuación se señalan, así como de una disposición transitoria única y dos disposiciones finales.

- El capítulo I recoge las disposiciones generales referidas al objeto de la norma, su ámbito de aplicación, la distribución competencial entre



zioen arteko eskumen-banaketa, familia-bitartekaritzako zerbitzuak eta programak, familia-bitartekaritzaren xede diren gatazkak, familia-bitartekaritzaren prozesuan hartutako erabakien izaera eta familia-bitartekaritzaren printzipio nagusiak.

- Ondoren, II. kapituluak bitartekari izan ahal izateko beharrezko diren ezaugarriak zehaztu dira, eta bitartekaritzan dihardutenek bete behar dituzten baldintzak aipatu. Familia-bitartekaritzako Aholku Batzordea sortu da eta elkargo profesionalen parte hartzea ere adierazi da.
- Gero, III. kapituluak bitartekariaren eskubideak eta eginbeharrak arautu dira, baita bitartekaritzan parte hartzen duten aldean eskubideak eta eginbeharrak ere.
- Hurrengoan, IV. kapituluak Bitartekariaren Erregistroa arautu da.
- Jarraian, V. kapituluak bitartekaritzari berariaz dagozkion prozedura-ezaugarriak jasotzen ditu: nola hasi, hasierako bilerak nola egin, aktak nola bete eta bitartekaritzan zenbat denbora eman behar den.
- Azkenik, VI. kapituluak bitartekariaren jardurean gerta daitezkeen arau-hausteen eta zehapenen araubidea azaldu da.

Euskal Autonomia Erkidegoak oso tresna garantzitsua eta beharrezkoa jarri du martxan bitartekariaren lana sendotzeko eta indartzeko; egia da gure lurraldean zeregin hori lehendik ere ezaguna zela, Eusko Jaurlaritzak bultzatuta horrelako ekimenak izan direlako dagoeneko (hala nola, Eusko Jaurlaritzaren Familia Bitartekaritzarako Zerbitzua), eta esparru pribatuaren ere era askotako esperientziak jarri direlako martxan; hala ere, esan bezala, beharrezkoa zen arlo honetan lege-esparru bat ezartzea, babesa eta bermea emateko, bai gatazkak konpontzeko bide hau erabiltzen dutenei, bai zeregin horretan modu profesionalen diharduten lagunei ere.

I. KAPITULUA XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Xedea

1. Lege honek familia-bitartekaritza arautu nahi du, eta arlo horretan lanean diharduten pertsonen jardunak ere bai, betiere, familia-bitartekaritza izateko eskubidea eta familia-bitartekaritzarako zerbitzuak eskuragarri izateko eginbeharra oinarri hartuta.
2. Familia-bitartekaritza borondatezko prozedura da, eta, bertan, profesional bat edo batzuk (bitartekaritzan kualifikatutakoak, inpartzialak eta erabakitzeko ahalmenik gabeak) familia barruko auzian aurrez aurre daudenei konponbiderik onena aurkitzen laguntzen saiatzen dira.

las diversas Administraciones concurrentes, los servicios y programas públicos de mediación familiar, los conflictos objeto de la mediación familiar, la naturaleza de los acuerdos adoptados en un proceso de mediación familiar y los principios rectores de la misma.

- El capítulo II regula las características necesarias para poder ser persona mediadora, señalando los requisitos que deben cumplir las personas que trabajen en mediación. Crea el Consejo Asesor de la Mediación Familiar y refiere la participación de los colegios profesionales.
- El capítulo III regula los derechos y obligaciones de las personas mediadoras, así como los derechos y obligaciones de las partes sometidas a la mediación.
- El capítulo IV regula el Registro de Personas Mediadoras.
- El capítulo V recoge los aspectos procedimentales propios de la mediación: su inicio, el desarrollo de las reuniones iniciales, la cumplimiento de actas y la duración de la mediación.
- El capítulo VI describe el régimen de infracciones y sanciones en las que puede incurrir la persona mediadora.

Con esta regulación la Comunidad Autónoma del País Vasco se dota de un instrumento necesario para el afianzamiento de una figura que, si bien ya gozaba de implantación en nuestro territorio por existir experiencias consolidadas promovidas por el Gobierno Vasco, como el Servicio de Mediación Familiar del Gobierno Vasco, y un amplio abanico de experiencias desarrolladas en el ámbito privado, requería un marco legal de aplicación que ofreciera garantías de protección para las personas que optan por esta vía de resolución de conflictos y para quienes profesionalmente se dedican a esta actividad.

CAPÍTULO I DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1. Objeto

1. La presente Ley tiene por objeto la regulación de la mediación familiar y de las actuaciones de las personas que trabajan en ella, contemplando el derecho a la mediación familiar y el deber de existencia de servicios de mediación familiar.
2. La mediación familiar es un procedimiento voluntario en el que una, uno o más profesionales con cualificación en mediación, imparciales y sin poder decisorio, ayudan a las partes en conflicto a encontrar soluciones aceptables para concluir su conflicto familiar.



2. artikulua. Aplikazio-eremua

1. Zati batean nahiz osorik Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde barruan egiten diren familia-bitartekaritzako jardunetan aplikatu behar da lege hau.
2. Dena dela, aurreko paragrafoan ezarritakoari kalte egin gabe, gutxienez familia-azian dabil-tzan pertsonetako bat Euskal Autonomia Erkidegoan erroldaturik dagoenean, orduan bakarrik erabili ahal izango dituzte bitartekaritza-jardunetan familia-bitartekaritzako programa edo/eta zerbitzu publikoak.

3. artikulua. Eskumen-banaketa

1. Eusko Jaurlaritzaren barruan familia-bitartekaritzan horretarako ahalmena duen sailak honako eskumen hauek izango ditu:
 - a) Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako Administrazio Publikoekin batera elkarlanean, eta bere eskumenei dagozkien esparruaren barruan, familia-bitartekaritzan zerbitzu publiko integralak egon daitezen bermatuko du.
 - b) Familia-bitartekaritzaren zerbitzuetako jardunen kalitatea bermatuko du, baita Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean era horretako zerbitzuak ematen diharduten pertsonen jardunen kalitatea ere.
 - c) Bitartekarien Erregistroa kudeatu, eta erregistro hori beti eguneratuta dagoela begiratu du.
 - d) Zehatzeko ahala erabiliko du, dagokion zigorra ezarrita, lege honen VI. kapituluaren arabera arau-hauste diren egoeretan.
 - e) Gaur egun burutzen diren jardunak planifikatu, arautu eta antolatuko ditu, herritarrek benetan dituzten beharri zehatzeko erabiliko du, horretarako ezarritako den prozedura erabilita.
 - f) Familia-bitartekaritza garatzeko eta lege honetan ezarritako xede guztiak modu egokian betetzeko egin beharreko jardun guztiak egingo ditu.
 - g) Bitartekariak eurek edo bitartekaritza jasoduten pertsonen jarrirako kexak kudeatuko ditu, horretarako ezarritako den prozedura erabilita.
 - h) Salbuespen-egoerarik badagoen ala ez aztertuko du, bitartekaritzaren muina den gaiari lotuta, bitartekariak, azian dau-

Artículo 2. Ámbito de aplicación

1. La presente Ley es de aplicación a las actuaciones de mediación familiar que se desarrollen total o parcialmente en el territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco.
2. Sin perjuicio de lo establecido en el apartado anterior, únicamente podrán acogerse a los servicios y/o programas públicos de mediación familiar las actuaciones citadas cuando al menos una de las personas que se encuentre en situación de conflicto familiar esté empadronada en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Artículo 3. Distribución competencial

1. El Departamento del Gobierno Vasco competente en materia de mediación familiar ostentará en dicha materia las siguientes competencias:
 - a) Garantizará, en colaboración con el resto de las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco y en el ámbito de sus competencias, la existencia de servicios públicos integrales de mediación familiar.
 - b) Garantizará la calidad de las actuaciones de los servicios propios de mediación familiar, así como la de las actuaciones de las personas que presten sus servicios en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco.
 - c) Gestionará el Registro de Personas Mediadoras, supervisando su continua actualización.
 - d) Ejercerá la potestad sancionadora en los supuestos que conforme al Capítulo VI de la presente Ley sean constitutivos de infracción.
 - e) Planificará, regulará y ordenará las actuaciones existentes, para garantizar la adecuación del servicio a las necesidades reales de la ciudadanía.
 - f) Realizará todas aquellas actuaciones necesarias para el desarrollo de la mediación familiar y el cumplimiento de los objetivos establecidos en la presente Ley.
 - g) Gestionará las quejas interpuestas por las personas mediadoras o las partes sometidas a la mediación, mediante el procedimiento que se establezca al efecto.
 - h) Analizará si se dan los supuestos de excepcionalidad para que la persona mediadora atienda a las partes en una ac-



denei laguntzearen, bitartekaritza bestelako beste jardun profesional batean parte hartuko duen erabakitze, eta, hala badagokio, jardun hori burutzeko baimena emango du.

- i) Estatistika-azterketa bat egingo du Bitartekariaren Erregistroan izandako inskripzioak, idatzoharrak eta ezabaketak oinarri hartuta, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legean ezarritako betekizunen arabera.
- j) Familiako bitartekari izateko kalifikazio profesionala lortzeko beharrezko diren prestakuntza-betekizunak onartuko ditu.

2. Toki- eta foru-erakundeek, berriz, honako esku-men hauek izango dituzte familia-bitartekaritzaren arloan:

- a) Familia-bitartekaritza sustatuko dute, Eusko Jaurlaritzan arlo horretan eskumenak dituen sailarekin batera elkarlanean.
- b) Familia-bitartekaritzaren arloan, beren eskumenen esparruan, zerbitzu eta/edo programa propioak sor daitezela lagunduko dute; betiere, jardunak kalitatekoak izango direla bermatuta.
- c) Arlo horietako jakintzak, esperientziak eta berrikuntzak elkarrekin trukatzeko lagunduko dute.
- d) Familia-bitartekaritza egokiro garatzeko egin beharreko jardun guztiak egingo dituzte, Eusko Jaurlaritzan familia-bitartekaritzaren arlo horretan eskumenak dituen sailarekin batera elkarlanean.
- e) Familia-bitartekaritzari lotuta martxan dituzten zerbitzu eta/edo programen berri jakinaraziko diote Bitartekariaren Erregistroari.

4. artikulua. Familia-bitartekaritzako zerbitzu eta programa publikoak

1. Eusko Jaurlaritzaren barruan familia-bitartekaritzako eskumena duen sailak familia-bitartekaritzako doako zerbitzu publikoak sortu eta mantenduko ditu, arlo horretan dagoen eskaerari erantzuteko bestean; lehenetsuna izango dute, zerbitzua jasotzeko orduan, beste gizarte-zerbitzu batzuetatik edo Justizia Administrazioetik datozen herritarrak. Zerbitzu horiek, Gizarte Zerbitzuei buruzko urriaren 18ko 5/1996 Legearen 9.2 artikulua arabera, zuzeneko jarduntzat jota daude, eta erregelamenduari jarrai-

tuación profesional diferente a la de mediación para tratar sobre el mismo asunto sobre el que se haya estado mediando y en su caso, autorizará dicha actuación.

- i) Elaborará un estudio estadístico, relativo a las inscripciones, anotaciones y cancelaciones producidas en el Registro de Personas Mediadoras, de conformidad con los requisitos establecidos en la Ley 4/1986, de 23 de abril, de Estadística de la Comunidad Autónoma del País Vasco.
- j) Aprobará los requisitos de formación necesarios para obtener la calificación profesional de mediador o mediadora familiar.

2. Las Entidades Locales y Forales ostentarán en materia de mediación familiar las siguientes competencias:

- a) Fomentarán, en colaboración con el Departamento del Gobierno Vasco competente en la materia, la mediación familiar.
- b) Impulsarán, en el ámbito de sus competencias, la creación de servicios y/o programas propios de mediación familiar, respecto a los cuales habrá de garantizarse la calidad de sus actuaciones.
- c) Promoverán el intercambio de conocimientos, experiencias y novedades en estas materias.
- d) Realizarán, en colaboración con el Departamento del Gobierno Vasco competente en materia de mediación familiar, todas aquellas actuaciones necesarias en aras al desarrollo de esta última.
- e) Comunicarán al Registro de Personas Mediadoras los servicios y/o programas de mediación familiar dependientes de ellas.

Artículo 4. Servicios y programas públicos de mediación familiar

1. El Departamento del Gobierno Vasco competente en materia de mediación familiar creará y mantendrá servicios públicos integrales gratuitos de mediación familiar, que responderán a la demanda existente en esta materia y que priorizarán en cuanto a su acceso a las personas que sean derivadas desde otros servicios sociales o de la Administración de Justicia. Dichos servicios, que son declarados de acción directa a los efectos del artículo 9.2 de la Ley 5/1996, de 18 de octubre, de Servicios Sociales, serán

tuz garatu behar dira. Familia-bitartekaritzaren arloan laguntza emateaz gainera, zerbitzu horiek beste zeregin batzuk ere izango dituzte; hala nola, familia-bitartekaritza ikertu eta sustatuko dute, eta, era berean, Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean familia-bitartekaritza lotuta egiten diren gainerako zerbitzu eta/edo programa guztiak koordinatuko dituzte.

2. Foru-aldundiek eta udalek familia-bitartekaritzako doako eta berariazko zerbitzu eta/edo programa publikoak sortu eta mantendu ahal izango dituzte, lege honetan familia-bitartekaritza lotuta jasota dauden egoeretan, eta, betiere, Gizarte Zerbitzuei buruzko urriaren 18ko 5/1996 Legearen 1. artikulua araberaren arabera, erantzukizun publikoak duten gizarte-zerbitzuen sistemari berariaz dagozkion helburuak betetzeko orduan, eta aipatutako lege horren 11., 12. eta 13. artikuluetan ezarritakoaren arabera berezko dituen eskumenak betetzeko orduan. Familia-bitartekaritzako zerbitzu eta/edo programa publiko horiek ere erregelamendu bitartez garatuko ditu Eusko Jaurlaritzak.

5. artikulua. Familia-bitartekaritzan erabil litezkeen auziak

1. Laugarren maila arteko odol- edo ezkontza-ahaidetasuna izanik, ezkontza edo familia bidez lotuta dauden pertsonen arteko auziak, baita izatezko bikotea edo bizikidetzat- aldea osatzen duten pertsonen artekoak ere, horrelakoxeak izango dira familia-bitartekaritzan erabil litezkeen gaiak eta hartu litezkeen erabakiak, betiere, Zuzenbide pribatuari lotutako gaiei buruzkoak izanda, uanean- uanean indarrean dagoen ordenamendu juridikoak gai horiei dagokienez aitortzen badu pertsona interesdun horiek legez baliagarri direla edo, hala badagokio, arlo judizialean homologatuak izateko aukera badutela.
2. Era honetako gatazkak bidera daitezke bitartekaritzan:
 - a) Bikote-harremana hausten denean sortzen diren familiako gatazkak; gehiengotan, banantze, dibortzio edo deuseztasun-prozeduretan hartutako neurri judizialak betetzeko orduan desadostasunak daudelako sortzen dira gatazkak, eta, beste zenbaitetan, epaiketaren bidez nahiz judizioz kanpo onartutako akordioei dagokienez gerora egoerak aldatu egin direlako.
 - b) Gurasoen eta seme-alaben arteko gatazkak, harremana edozein eratako dela ere (biologiko nahiz adopzio-egoerakoa nahiz harrera-egoerakoa); seme-alaben arteko gatazkak, eta ahaideen arteko elikagaiei buruzko desadostasunak eragindako gatazkak ere bai.

desarrollados reglamentariamente. Además de la función de atención en materia de mediación familiar tendrán como funciones, entre otras, las de investigación y difusión de la mediación familiar, así como la coordinación de los restantes servicios y/o programas de mediación familiar realizados en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2. Las Diputaciones Forales y los Ayuntamientos podrán crear y mantener a su vez servicios y/o programas públicos gratuitos de mediación familiar específicos, en los supuestos de mediación familiar previstos en esta Ley y dentro de las finalidades propias del sistema de servicios sociales de responsabilidad pública, en los términos establecidos en el artículo 1 de la Ley 5/1996, de 18 de octubre, de Servicios Sociales, así como de las competencias que les son propias a tenor de lo establecido en los artículos 11, 12 y 13 de la referida Ley. Los citados servicios y/o programas públicos de mediación familiar serán así mismo objeto de desarrollo reglamentario por el Gobierno Vasco.

Artículo 5. Conflictos objeto de mediación familiar

1. Las cuestiones que pueden someterse a mediación familiar y los acuerdos que se adopten se han de referir a los conflictos surgidos entre las personas unidas por vínculo conyugal o familiar hasta el cuarto grado de consanguinidad o afinidad, así como entre las que constituyan pareja de hecho o grupo convivencial, siempre que todos los conflictos citados en este precepto versen sobre materias de Derecho privado respecto a las cuales el ordenamiento jurídico vigente en cada momento reconozca a las personas interesadas la libre disponibilidad o, en su caso, la posibilidad de ser homologadas judicialmente.
2. Entre otros podrán someterse a mediación:
 - a) Los conflictos familiares originados en las situaciones de ruptura de pareja, entre los que se comprenden los derivados de la ejecución de las medidas judiciales adoptadas en los procedimientos de separación, divorcio o nulidad y aquellos otros originados por el cambio de circunstancias sobrevenidas de los acuerdos aprobados judicial o extrajudicialmente.
 - b) Los conflictos entre progenitores o progenitoras y su descendencia, sea biológica o en situación de adopción o en situación de acogimiento o entre hijos e hijas entre sí, así como los conflictos causados por una discrepancia sobre alimentos entre parientes.



- | | |
|---|--|
| <p>c) Harrerako familien eta familia biologikoen artean sortutako gatazkak.</p> <p>d) Gurasoek aitona-amonei ilobekin harreman normalizatuak izaten uzten ez dietenean sortzen diren gatazkak.</p> <p>e) Jarauntsiak, oinordetzak edo familiako negozioak direla-eta lehen paragrafoan aipatutako kideen artean sortutako gatazkak.</p> <p>f) Inoren laguntza behar dutenen eta horiek zaintzen ari diren familiako kideen artean sortzen diren gatazkak, betiere, lehen paragrafoan aipatutako ahaideez ari gara.</p> <p>g) Bizikidetzataldean artean sortutako gatazkak; lege honen ondorioetarako, familia-bitartekaritza eskatzen denerako, urtebetean edo hortik gorako epea batean, betiere jarraian, etxebizitza berean elkarrekin bizi izan diren pertsonak joko dira bizikidetzataldetzat.</p> | <p>c) Los conflictos surgidos entre la familia de acogida y las familias biológicas.</p> <p>d) Los conflictos surgidos cuando los progenitores y las progenitoras impidan a los abuelos y abuelas mantener relaciones normalizadas con sus nietos y nietas.</p> <p>e) Los conflictos existentes en las personas citadas en el apartado 1 por causa de herencias, sucesiones o negocios familiares.</p> <p>f) Los conflictos originados entre personas dependientes y las personas de sus familias que las atiendan, siempre que se trate de personas citadas en el apartado 1.</p> <p>g) Los conflictos originados entre grupos convivenciales, entendidos éstos —a los efectos de esta Ley— como personas que cuando soliciten la mediación familiar hayan convivido en el mismo domicilio durante un período de tiempo continuado igual o superior a un año.</p> |
|---|--|
3. Adoptatutako pertsonak, beren filiazio biologikoari buruzko informazioa eskuratzeko duten eskubidea baliatu nahi izanez gero, bitartekaritza-prozedura konfidentziala erabili ahal izango dute, betiere, haurrak eta nerabeak babesteko eta laguntzeko otsailaren 18ko 3/2005 Legearen 84. artikuluan ezarritakoari jarraituz.
4. Familia-bitartekaritza kanpo geratuko dira ordenamendu juridikoaren arabera bitartekaritza edo familia-bitartekaritza erabiltzeko debekua duten egoera guztiak.

6. artikulua. Familia-bitartekaritzan hartutako erabakiak nolakoak diren

1. Familia-bitartekaritzaren bidez gatazka ebazterakoan hartzen diren akordioek aplikatzeko den legeriak aitortutako ondorioak izango dituzte, baldin eta legeak ezarritako baliagarritasun-eta eraginkortasun-betekizunak betetzen badira.
2. Hartutako akordioek lehentasuna eman behar diete seme-alaba adingabeen ongi-izateari eta interes onenari, eta, halakorik badago, ezinduei ere bai.

7. artikulua. Familia-bitartekaritzaren printzipio nagusiak

Familia-bitartekaritza zuzendu behar duten printzipio nagusiak hauek dira:

- a) Borondatezkoa izan behar du. Auzitan dauden aldeek askatasun osoa dute prozedura hau aukeratzeko, erabiltzeko edo, edozein unetan, horregatik inolako zehapenik jaso gabe, proze-

Artículo 6. Naturaleza de los acuerdos de mediación familiar

